

Durk Gorter

Hizkuntzen zientzialaria

**«Hemen jendeak ingelesez
hitz egiten hasi aurretik
barkamena eskatzen dizu»**

Ikerbasque programaren bitartez euskal herriratutako irakasle honek eleaniztasunaren ikuspegi soziologikoa du ikerbide. Euskaltegian ari da euskara ikasten, eta gaztelania kalean. Harrigarria egiten zaio euskaldunok ingelesarekin dugun jokabidea, hanka ez sartzeagatik mutu geratzen omen gara.

NEKANE GOIKOETXEA / SAIOA LABAKA

Argazkiak: Dani Blanco



Nor da Durk Gorter?

56 urteko herbehereetarra, soziologian lizentziatua eta humanitateetan doktorea da. Amsterdameko Unibertsitatean Soziolinguistika Saileko arduraduna eta Fryske Akademy-ko (www.fa.know.nl) kide eta kudeatzailea izan zen. Hainbat ikerketa-sareta-ko kide eta koordinatzaile, 30 urteko esperientzia luzea du hizkuntza arloko ikerketetan. 2008tik EHUKo Hezkuntzaren Teoria eta Historia Saileko ikerlari dihardu Ikerbasque programaren eskutik.

A goeie (kaixo, frasieraz) Gorter jauna. Ikerbasque programaren bitartez EHUKo Filosofia eta Hezkuntza Zientzien fakultatean ari zara lanean. Zein motibazio izan zenuen hona etortzeko?

Ikerbasque programaren helburua da ehun bat goi-mailako ikerlari ekartzea EAera. Nik euskal egunkari batean ikusi nuen iragarkia, gaiari sakondu eta nire eskaera aurkeztea erabaki nuen. Aukeraketa prozesu zorrotza etorri zen ondoren, nazioarteko epaimahai batek gidatu zuena. Onartua izan ondoren, 1.000tik gora eskaera aurkeztu zirela jakin nuen.

Fryske akademian, kudeaketa lanetan eta Amsterdameko Unibertsitatean irakasle eta ikerlari gisa aritu nintzen lanean azken urteetan. Lanegun osoz ikerketan aritzeko aukera gustagarria zen niretzat. Gainera, Ikerbasquen nik nahi ditudan eremuak aukera ditzaket ikerketetan, ez dut mugarik. Bestetik, Euskal Herria aspalditik ezagutzen dut, bertako ikerlari asko ezagutzen ditut,

elkarlanean aritu izan gara eta 2002an egonaldi luzea egin nuen Gasteizen irakasle gonbidatu gisa.

Zein ikerketa-ildo lantzen dituzu Ikerbasquen?

Bi lan-ildo proposatu nituen nire eskaeran. Batetik, Europako hizkuntza minorizatuen arteko ikerketa konparatiboak hainbat eremutan:

“Zuek ez duzue euskaldun elebakarrik eta ez duzue gizarte hartara itzuli nahi, aurrera begiratzen duen gizartea zarete”

administrazioan, hezkuntzan, komunikabideetan, arlo juridikoan e.a. Bestetik, eleaniztasuna; hots, estatus ezberdineko hizkuntzen arteko elkar eraginaren azterketa. Ikuspegi honetatik lantzen ari naizen gaietako bat hizkuntza-paisaiarena da.

Kanpotik datozen ikerlariak zer bilatzen dute hemen?

Alde batetik, hemen aurkitzen dituzten erraztasunak eta, bestetik, beren curriculumak hobetzea, promoziorako aukerak. Gehienak ni baino gazteagoak dira, nik ez

“Gehiago garatu beharko zenuketen eredia eleaniztasun pasiboarena da. Euskara eskola bereziak, adibidez, ulermena lantzeko”

dut ohiko profila ematen adinagatik. Beraien ibilbidean urrats gisa ikusten dute aukera hau, urte batzuetarako helmuga. Logikoa da ze Ikerbasquera datorren ikerlariari aurretik zenbait unibertsitatean aritu izana eskatzen zaio. Beraz, bide beretik jarraitzen dute.

Ikerketan horrela aritzeko ingeles maila polita beharko da.

Bai, oso deigarria egin zait hemen, jendeak ingelesa erabili aurretik *“my english is not very good”* esaten dizula. Eta ez da egia kasu askotan. Badago zer-bait horren atzean. Nik uste jendearen ustea dela, maila bikaina izan arte, ezin dutela erabili. Ez da inolaz ere egia. Erabiliz ikasten da! Nik horrela jokatzen dut euskara nahiz gaztelaniarekin. Prest nago hanka sartzeko.

Zein arrazoi egon liteke horren atzean?

Gauza kulturala da, nire aburuz. Gauza bera gertatzen da euskararekin ere, euskaltegiko ikasleen artean. Hanka sartzeko beldur dira. Garrantzitsua da testuinguru kontuan hartzea. Nik elkarrizketa hau ezin dut gaztelaniaz ala euskaraz egin, ez dut nahikoa mailarik. Testuinguru honetan garrantzitsua da niretzat ongi azaltzea. Baina beste testuinguru batzuetan euskara ala gaztelania erabili egin behar ditut ikasiko baditut. Hemengo oso fenomeno interesgarria iruditzen zait, arrazoi konplexuek eragindakoa.

Jendeak barkamena eskatzen du aurretik. Hizkuntza sumisioarekin lotuta egon liteke portaera hori?

Ez dut uste. Hiztunak harreman onak izan nahi ditu, solaskidearen maila berean ikusi nahi du bere burua. Beharbada, sumisioaren kontrakoa izan liteke; ez dago prest gutxiago sentitzeko interakzio horretan.

Zergatik da interesgarria hemengo egoera linguistikoa?

Europar kasu arrakastatsuenetako bat da. Hori interesgarria da, laborategi txiki bat bezalakoa da. Oso gizarte dinamikoa da, dena bikoizten duzue! Modernoa da, era berean. Aztertzen dituzunean hizkuntza minorizatuak dituzten beste herri batzuk, gizarte arkaikoak ikusten dituzu. Euskal Herriko hizkuntza

Babeslea: Getxoko Udala



KULTURA ARTEKO KARAOKEA

EKAINAK 19

ORDUA 21:00-24:00

Santa Eugenia Plaza. Romo-Getxo
Karpa estalia. Sarrera doan.

PROGRAMAZIOA:
10 karaoke
Gonbidatu bereziak:
Jorge eta Israel Pisa, flamenkoa euskaraz
Jone Diez, gazte getxotarra
Jose Heredia eta bere taldea
Candela Radio Dj-a
Munduko gastronomia eta txosna
Eskerrik asko eskaini duten laguntzagatik:
Bizarra Iepoan, Camino al barrio,
Sikap Filipinas, Kale Dor Kayiko y Krearte.







• TERMOMETROA •

"Kanpotik zer etorriko zain zaudete eta gauza asko hemen egin egiten dituzue. Kataluniarekin asko gertatzen zaizue hori"

egoeratik gehien interesatzen zaidana da nola uztartzen diren euskara indarberritzeko ahalegina, etorkinen hizkuntzak integratzekoa eta gizarte modernoak. Zuek ez duzue euskaldun elebakarrik eta ez duzue gizarte hartara itzuli nahi, aurrera begiratzen duen gizarteak zarete. Harrigarria da zenbat aireportu dauden euskal eremuan! Munduarekin konektatuta zaudete. Hizkuntza minorizatuek duten arrisku handienetakoa isolamendua da. Zuek nahi ala ez gizarte eleanitzean bizi zarete. Beraz, aukera polita da niretzat behatzea erronka horientzat zein irtenbide proposatzen dituzuen. Twitter iraultzan bizi gara. Twitter filosofia hizkuntzetara eramane behar da.

Ongi saltzen al dugu euskaldunok eleaniztasunaren kudeaketan dugun esperientzia?

Hobetu liteke. Diseinu maila handia dago Euskal Herrian. Maila handia ikusten dut kartel, inprimaki eta publizitatean, oro har. Horri gehiago erreparatu beharko zenioke. Kanpotik zer etorriko zain zaudete eta gauza asko hemen egin egiten dituzue. Kataluniarekin asko gertatzen zaizue hori. Katalanek ere etengabe so egiten diote hemengo errealitateari.

Euskara ikasten ari zara. Zer moduz?

Saihesten ari naiz euskara zaila dela esatea. Euskara ezberdina da, Europako beste hizkuntzekin konparatuta. Kexa hori darabilten erdaldunek nik baino abantaila handiagoak dituzte: ahoskera, soinuak berberak dira, hizkuntzaren alderdi pragmatikoa... Euskara oso logikoa da; ez daukazu ia salbuespenik, arauak oso finkoak dira.

Euskara Europako hizkuntza zaharretakoa da. Ikusten al dute gainontzeko europarrek beren ondareztat?

Nik uste jakin ere ez dakitela. Europan hizkuntza minorizatuak bigarren mailakoak dira. Baina gaur egun ez da hori euskarak duen balio nagusia. Uste dut askoz ere interes-



garriagoa dela etorkizunean jarraituz duen begirada. Balioa ez dago hizkuntzan, ezta hitzun kopuruan ere; bere gizarteak eman nahi dion balio erantsian, bere atxikimenduan dago balioa. Hor dago jokalekua.

Euskal Herriko gauza interesgarrietakoa da nolako erantzun soziala egon den hizkuntza indarberritzeko, Estatua demokratizatu ondoren eta, hortaz, hizkuntza minorizatuaren aldeko politika garatzeko aukera izanda. Frisierarekin konparatzen badugu, han ez dago horrelako atxikimendurik. Sekula ez du frisierak euskara edo katalanek bizi izandako zapalkuntzarik izan, horregatik jendeak ez du horrelako erantzun proaktiborik izan. Euskal gizartearen mintzaldatzearen arriskua hain gertu ikusi denez, erantzuna oso handia izan da.

Uste dut Euskal Herrian gehiago garatu beharko zenuketen eredia eleaniztasun pasiboarena dela. Euskara eskola bereziak, adibidez, trebetasun hartzaileak, ulermena lantzeko. Horrek erraztuko luke euskara erabil-

tzeko eremuak hedatzea. Euskararen ezagutza eta erabileraren arteko jauziari erreparatuta, funtsezkoa iruditzen zait hau estrategia bezala. Egoera eleanitzekiko tolerantzia handiagoa sustatu behar da. Hor euskarak du irabaztekoa. Ohitzen zarenean ez zara hain arraro sentitzen.

***Added value of multilingual education* izeneko egitasmoa martxan duzue Herbehereen eta Euskal Herriaren artean. Zein ekarpen dakarzikio eleaniztasunak gizarteari?** Handia. Gu jorratzen ari garen bidea da, ekonomian erabiltzen diren tekniken bidetik, balio erlatiboa azalartzearena. Alegia, zein balio ematen dio gizarteak hondartza osasuntsu bat izateari ala paisaia linguistikoa bere hizkuntzan ikusteari? Ikuspegi horretan sakondu nahi dugu egitasmo honekin. Eleaniztasunaren bitartez, jendea zein ate zabaltzen zaizkion aztertu nahi dugu.

Oant sjen (agur, frisieraz) Gorter irakaslea. ■